

MATERIALAK

(testu osagarriak, iruzkinetarako testu, taula eta grafikoak etab.)






Figura 3.7. Tipos de arado ligero utilizados en la Europa medieval.



ESTRUCTURA DE UN GRAN DOMINIO EN LA ALTA EDAD MEDIA



John Buteryk lur-sail bat dauka, zeinaren trukean urtero 15 diru ordainduko baititu (...). Astean hiru egunetan gari-neurri bat jo beharko du (...) edo jaunak agindutako beste lanen bat egin. Urtero, neguan, deitua den orotan, *bonnier* bat goldatu eta arrastelatu beharko du; halakoetan jaunak elikatuko du (...). San Martin egunean hiru akre goldatuko ditu. Eta jaunen bat Becera badoa jaurgu hau zeharkatuz, eta zelabererik edo ezkutaririk ez badu, zaldiz joango da harekin egun batez, hots, hogeita hamar legoatan zehar (...). Halaber, ardiak garbitu beharko dizkio jaunari, jaunaren belardia segatu, (...) belarra jaso eta garraiatu (...). Eta uzta-aste guztian zehar bestelako lanez aske egongo da (...). Udazken osoan zehar, San Pedro egunetik aurrera, neurtu egin beharko du, jarraian eta egunero, akre erdi baten produkzioa, edo baliokideak diren bestelako lanak egin beharko ditu (...).

Ezingo ditu alabarik edo bilobarik ezkondu jaunaren baimenik gabe, ezta haren baimenik gabe bere zaldirik edo idirik saldu (...). Jaunaren errotan ehotuko du alea (...).

Lur-sailtako nekazari guztiak berdinak dira eta kondizio berekoak beren lanei eta ohiturei dagokienean. Maizterraren heriotza-unean jaunak haren animaliarik onena hartuko du. Eta *ab intestato* hilko balitz, haren abelburu guztien jabe bihurtuko da jauna.

John Butery nekazariari ezarritako prestazioak, Ingalaterra, XIII. mendea.

*Cálculo de la población (en millones)
en épocas determinadas entre los años 500 y 1450*

Área	500	650	1000	1340	1450
Grecia y Balcanes	5	3	5	6	4,5
Italia	4	2,5	5	10	7,5
Península Ibérica	4	3,5	7	9	7
Total Sur de Europa	13	9	17	25	19
Francia y Países Bajos	5	3	6	19	12
Islas Británicas	0,5	0,5	2	5	3
Alemania y Escandinavia	3,5	2	4	11,5	7,5
Total Europa occidental y central	9	5,5	12	35,5	22,5
Países eslavos	5	3			
Rusia			6	8	6
Polonia-Lituania			2	3	2
Hungría	0,5	0,5	1,5	2	1,5
Total Europa oriental	5,5	3,5	9,5	13	9,5
TOTAL TODA EUROPA	27,5	18	38,5	73,5	50

FUENTE: J.C. RUSSELL (1979): «La población en Europa del año 500 al 1500», en C.M. CIPOLLA, *Historia económica de Europa*, vol. 1, p. 38.

TXAN DAKETA - SISTEMAK

Sistema bienal

Año 1	Año 2	Año 3	Año 4	Año 5	Año 6
Cereal de invierno: cantidad 150 valor 150	Barbecho	Cereal de invierno: cantidad 150 valor 150	Barbecho	Cereal de invierno: cantidad 150 valor 150	Barbecho
Barbecho	Cereal de invierno: cantidad 150 valor 150	Barbecho	Cereal de invierno: cantidad 150 valor 150	Barbecho	Cereal de invierno: cantidad 150 valor 150


Total: cantidad 900, valor 900


Sistema trienal

Año 1	Año 2	Año 3	Año 4	Año 5	Año 6
Cereal de invierno: cantidad 100 Valor 100	Cereal de primavera: cantidad 100 valor 50	Barbecho	Cereal de invierno: cantidad 100 valor 100	Cereal de primavera: cantidad 100 valor 50	Barbecho
Cereal de primavera: cantidad 100 valor 50	Barbecho	Cereal de invierno: cantidad 100 valor 100	Cereal de primavera: cantidad 100 valor 50	Barbecho	Cereal de invierno: cantidad 100 valor 100
Barbecho	Cereal de invierno: cantidad 100 valor 100	Cereal de primavera: cantidad 100 valor 50	Barbecho	Cereal de invierno: cantidad 100 valor 100	Cereal de primavera: cantidad 100 valor 50

Total: cantidad 1.200, valor 900

IZURRI BELTZAREN HEDAKUNTZA






Fuente: R. R. S. López, *Naissance de l'Europe. siglos V-XIV*, Paris, A. Colin, 1962, p. 288.

Elementos principales:


1. «Auspoa». harquín o fuelle.
2. Cañón.
3. Tohera.
4. «Sutegia» o fogal.
5. «Auspoardatza» o eje harquinero.
6. «Masukaria» o diente mazuquero.
7. Esgamel.
8. Contrapeso.




ALIMENTADOR DE AIRE CON FUELLES

Fuente: I. ARBIDE y otros, *Ferrerías en Legazpi*, p. 158.

Figura 20. Esquema de funcionamiento de los barquines



A: Palanca que cuando se suelta, por medio de una leva, comprime el fuelle.—B: Ranuras o acanaladuras a través de los postes.—C: Barra.—D: Instrumento de hierro con un eslabón rectangular.—E: Instrumento de hierro con un anillo redondo.—F: Mango de fuelle.—G: Poste superior.—H: Palanca superior.—I: Caja con sus lados iguales.—K: Caja estrecha en el fondo.—L: Pinzas metidas en la palanca superior



FUNCIONAMIENTO DE LOS MARTILLOS

1. Gabi.
2. Gabigun.
3. Dendal.
4. Masukariak.
5. Gabiardatza.
6. Dendal arria.
7. Ingude.

I. ARBIDE y otros, *Ferrerías en Legazpi*, p. 182.

Figura 25. Esquema de funcionamiento del mazo




FIGURA 10.8

Precios de cereales en Cracovia




FIGURA 10.9

Ingresos reales de un artesano de la construcción expresados mediante la cantidad de artículos de consumo





Figura 2.3
EVOLUCIÓN DEL PRECIO DEL TRIGO, EL VACUNO Y EL QUESO
EN INGLATERRA



Fuente: POUNDS, N. J. G. (1987): *Historia económica de la Europa medieval*. Barcelona, Editorial Crítica, p. 554.

dintzak (landa-barneko formapean, lehenik eta behin), eta lanaren gizarte-banaketan sakonago bat eratu zituen. Ez da kasualitate iraultza feudalak hazkunde testuinguru orokor baten erdian gertatzea (antzeko zenbat adibide dago). Testuinguru horrek gizarte-arkaismoak azaleratzen ditu, batzuei desklasatzeak eta desorekak ekartzen dizkic, irrikak eta gutizia, berriz, beste batzuei; desorekatzailera da berez. (...)

5. Azken proposamena: frankoen garaia hausturan bukatzen da. Ez zen, trantsizio nabariezinez, egoera batek besterako bilaraera soilak gertatu. Asaldura batek jo zituen gizarte-bizitzaren alderdi guztiak: botereen banaketa berria, utziakuntza harreman berriak (jaurgai), mekanismo ekonomiko berriak (merkatuaren agerpena), ideologia sozial eta politikoa berria. Iraultza hitzak esanahirik badu, non da hemen baino egokiago?

Guy Bois, *Milagarren urteko aldakuntza*, 1989.

Dohain feudal bat

Feudalismo klasikoaren produktio-harremanen ezaugarri batzuk aurki ditzakegu jaun laiko batek Clunyko erlijio-ordenari egindako dohain nahikoa ohiko honetan: morroitzak eta lurarekiko laborarien lotura, nekazarien status ezberdintasunak... Halaber, garaiko nekazaritza-ekonomiaren isla ere ematen digu.

Nik, Jossieran, zalduna, Cypierre-koa ere deitua, Odile nire emaztearekin, biok nahi dugun donek (...) Jainkoari eta Pedro eta Paulo bere apostolu santuei eta baita Hugo abade agurgarriak zuzentzen dituen Cluny-ko fraileei ere dohainean ematen diegula, gure eta gure arbasoen arimatengatik, gure menpean dagoen Chaselle deritzan Macon-en dagoen domeinu bat, hots, eliza eta kanposantua, mahastiak eta zelaiak, galtzuak eta basoak, errota eta urak, ur-lasterak, Ameuyny-ko elizatik Plantes-eko "condamina"-raino (...), Bray-ko baso eta Taizé-ko zelaitaraino, eta Chissé-ko basoraino, eta lur guztia, landua ala ez, muga hauen barnean manso-arena bezala onartzen dena: eta muga horietatik kanpo Notre-Dame de Chaselle-ko elizaren menpean lego-keena (...) ematen diegu. Letaud eta Alton gure semeek ere onartzen eta baitez- tatzten dutelarik. Halaber morroi hauek ematen ditugu: Guy erroteria eta bere seme-alabak; Humberto eta bere emazte eta seme-alabak; Jousaud itzainaren seme-alabak; halaber beste Jousaud eta bere seme-alabak; Roberto-ren semea den Humberto, eta bere ama, eta Maimberto-ren seme-alabak; baita Giraud-en semea, Alerico-ren seme-alabak ere; Juan eta bere seme-alaben erdia; Vicent

erroteria eta bere seme-alaben erdia; Engeaume eta bere seme-alaben erdia. Azken hiru hauen emazteei dagokienez, bakoitzarengandik zentsu bezala bakoitzari *denier* hartuko ditugu, bizi garen bitartean. Baita Maria eta bere seme-alabak ere ematen ditugu. Nire emaztearen izeba Ameliak fraile hauei eman zien domeinuaren zatiaren dohainari dagokionez, Ricardo eta Godofredo bere semeek onartu zutena, guk onesten dugu. Zaldun batek berme moduan gordetzen duen elizaren hamarrenari dagokionez, hitz ematen dugu beroni konpentsazio modura ematea, berak onartzen badizkigu, bost *solde* Macon-eko lur baten gaineko errenta bezala (...) Jaunaren Gizakundearen 1089.eko urtean egina, Felipe Frantziako erregearen erregeztan.

Cluny-ko *agirien bilduma*, 4. alea, 3636. zbk. (11089).

Gremio arautegi bat

Pasarte labur hauetan hirietako gremio aurreindustrialen funtzio eta funtzioan-menduari buruzko erreferentzia bat aurki dezakegu.

Ezin da inor artile-ehule izan lehenago erregearen ofizioa ez badu erosi (...). Bakoitzak etxean bi ehundegi eduki ditzake (...) eta maisu ehulearen seme bakoitzak aitaren etxean bi eduki ditzake, ezkongabe irauten duen bitartean eta eskuekin lan egiten baldin badaki (...). Maisu bakoitzak ikaslari bat eduki dezake, ez goghiago (...). Eta ezin da inor lanean hasi egunsentia baino lehenago, bestela maisuari hamabi dirutiako isuna eta ofizialari seikoa ezarriko zaie (...). Ofizialek lan egiteari utzi behariko diote bezperen lehenengo jotzearen ostean, baina gauzak atondu ahal izango dituzte bezpera hauen ostean (...).

Etienne Boileau, *Ofizioen liburuak*, 1260 inguruan.

Nekazari-komunitateen sendotzea

Ertaroko Europaren hazkunde ekonomikoak aurrera egiten zuen heinean, jaurgoiaren egituren ondoan, beste errealtate bat joan zen sendotzen: nekazarien komunitatea alegia. Beronen bilakaera Europako eskualdeetan zehar oso ezberdina izan bazen ere, leku askotan autonomia eta garrantzia maila handiak lortu zituela esan dezakegu. Erreduzkat hartu ezin badugu ere, testu honek adibide bat eskaintzen digu.